

Bilduma pribatueta dagozan Benito Barruetaren artelanak zaharbarritzeko edo garbitzeko dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak

Helburua

1. artikulua

Oinarri berezi honeen helburua Benito Barruetaren artelanak zaharbarritzeko edo garbitzeko dirulaguntzak emoteko erispideak finkatzea da. Bilduma pribatueta dagozan margolanen kontserbazioa ziurtatzen laguntzea da dirulaguntza honeen xedea, eta Bermeoko artistearen ondarearen iraupena bermatzeko asmoz emongo dira.

Aurrekontuaren aurreikuspenak

2. artikulua

Oinarri berezi honeek arautzen dabezan dirulaguntzen gehienezko kopurua urtero aurrekontuan ipinitako partidetako eta kontsignazioetako kopuruan finkatuko da.

2008. urterako dagoan kreditua: 5.000 €

Erispide Orokorrak

3. artikulua

1. Dirulaguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira. Baten emotek ez deutso derrigortasunik eragingo udalari, eta ez dau beste urte batzuetarako eskubiderik emoten ez aurrekaririk ezarten.

2. Udalak edozein momentutan ahal izango dauz murriztu edo kendu, klausula kaltegarrietan izan ezik.

3. Dirulaguntza ezin izango da gehitu ez berrikusi (ezin da erreklamaziorik egin).

Eskatzaileak

4. artikulua

Oinarri berezi honeetan xedatzen diran dirulaguntzak edozein persona fisikok eskatu ahal izango dauz, honeek baldintzak beteten badauz:

- a) Benito Barruetaren margolan baten jaubea izatea (zuzenbidean onargarriak diran frogen bidez kreditau ahal izango da hori).
- b) Bermeoko Udalak beste inoiz dirulaguntzaren bat emon badeutso, dirulaguntza horren kontra egindako gastuak justifikauta eukitea.

- c) Dirulaguntzea eskatzen dan egunean Bermeoko Udalagaz zorrik ez daukala kreditetea. Puntu hau udalak ziurtatuko dau.
- d) Egunean egotea betebeharriskaletan.

Diruz lagunduko diran jarduerak:

5. artikulua

2008ko ekitaldian Benito Barruetaren margo lanak garbitzeko edota zaharbarritzeko egindako gastuak.

Balorazino erispideak

6. artikulua

Dirulaguntza orokorrak emoteko eskaeren ordenea izango da kontuan, aurrekontuan dagoan dirua agortu arte. Udalak izentautako teknikari talde batek aztertuko eta onartuko dau jardueren gauzatzeko aurkeztutako aurrekontu proiektua. Udalak jarduera horren gastuaren % 50 diruz lagunduko dau.

Eskariak eta aurkezteko epea

7. artikulua

Dirulaguntza orokorretarako eskaerak Kultura batzordeko zinegotzi ordezkariaren izenean bialdu beharko dira, eta udaleko erregistro orokorrean edo Kultura, Gazteria eta Hezkuntza Saileko erregistroan aurkeztuko dira edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legeko 38. artikuluan jasotako bestelako erak erabilia.

Eskariak aurkezteko epea zemendiaren 10ean amaituko da.

Horrezaz ganera, honeek izango dira aurkeztu beharreko dokumentuak:

- a) NANaren fotokopia.
- b) Margolanaren fitxa tekniko.
- c) Margolanen egin beharreko lanen proiektu txostena.
- d) Margolanen egin beharreko lanen aurrekontu zehatza.
- e) Dirulaguntzea tramitetako erantzen dan agiria beteta (8. artikuluen arabera). I. eranskina
- f) Proiektu-txostena, aurrekontua, eta tramiteak bideratzeko bete beharreko agiriak euskeraz aurkeztuko dira. Holan egin ezean, justifikau egingo da euskeraz zergaitik ez diran aurkezten.

Dirulaguntza eskariak ez badauz eskatutako agiri guztiak beteten, interesdunak 10 egun eukiko dauz akatsak zuzentzeko. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko eiten jakola ulertuko da.

Dirulaguntzearen onuradunen betebeharrak

8. artikulua

1. Jasotako dirulaguntzea emondako xedera bideratzea osorik.
2. Baldintza berezi honeetan jasotako arauak betetea.
3. Udalak antolatutako erakusketetan margolanak bi bider ixteko konpromisoa hartzea.
4. Aurretik emondako dirulaguntza guztiak justifikauta eukitea.
5. Udalari jakinarazotea xede bererako beste dirulaguntza batzuk hartzen badauz.
6. Koadroa barriztu ostean, udalak argazki bat eukiko dau eta argitaratzeko eskubidea izango dau, jaubeari aurretiaz jakinarazota.

Dirulaguntzearen justifikazioa

9. artikulua

Dirulaguntzearen onuradunak dirulaguntzea eskuratu eta 6 hilebeteko epean dirulaguntzearen justifikazioa egin beharko dau, honeek dokumentuak ekarrita:

1. Egindako lanen memoria: margolanari aplikau jakozan teknika eta hobarien azalpenak.
2. Ordaindutako faktura originalak edo fotokopia konpultsatuak (udale txean eta Kultura Sailean konpultsak egiten dira).

Egiaztapena egin eta gero, originalak bueltau egingo dira. Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikaziorik, horreek ez badabe balio dirulaguntzearen helburuak lortzeko.

Dirulaguntzearen justifikazioa ez egitea arau-haustea izango da eta, ondorioz, justifikazioa aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, jasotako dirulaguntzea itzuli egin beharko da, gainkargu eta guzti.

Bestalde, diruz lagundutako lanaren behin betiko kostua aurkeztutako aurrekontua baino txikiagoa izan ezker, eskuratutako gehiegizko kopuruak itzuli egin beharko dira faktorea aurkezten danean. Holan egin ezean, gainkarguak ezarriko jakoz itzuli beharreko kopuruari.

Ebazpena

10. artikulua



Ebazpena egiteko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da, Kultura, Gazteria eta Hezkuntza Saileko proposamena azertu ondoren.

Ebazpena emoteko gehienezko epea hiru hilebetekoa izango da, eskariak aurkezten diran egunetik kontetan hasita.

Araubide juridikoa

Honeetan oinarrietan jasoten ez dan danerako zemendiaren 17ko 38/2003 Legean jasotakoa izango da aplikagarri.

Bermeon, 2008ko bagilaren 21ean

I. ERANSKINA

**Bilduma pribatuetan dagozan Benito Barruetaren artelanak
zaharbarritzeko edo garbitzeko dirulaguntzea
ESKARIA**

Eskatzailearen datuak

NAN		Izen-abizenak	
Helbidea			
Herria		Posta kodea	Tel.
Posta elektronikoko helbidea			

Jakinarazpenetarako helbidea (goian adierazotakoa ez bada)

Helbidea	
Herria	Posta kodea

Aurkeztutako dokumentazioa (aurkezten diran dokumentuak markatu)

- Dirulaguntzea tramitetako eransten dan agiria. I. eranskina
- NANaren fotokopia.
- Margolanaren fitxa teknikoⁱ.
- Margolanean egin beharreko lanen proiektu txostenaⁱⁱ.
- Margolanean egin beharreko lanen aurrekontu zehatzaⁱⁱⁱ.
- Xede bererako bestelako dirulaguntzarik eskatu izanaren azalpena.
- Eskaerea euskeraz ez aurkeztearen justifika zinoa.

Izpta. (eskatzaile jaun/andrea)

.....(e)n, 2008koaren(e)(a)n.

ⁱ Udaleko zerbitzu teknikoek atal hau beteten lagundu leikie.

ⁱⁱ Lanak egingo dauzan enpresek egiteko.

ⁱⁱⁱ Lanak egingo dauzan enpresek egiteko.